011 TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENEI ETA MURRIZKETEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ZIOEN AZALPENA

Orain arte indarrean egon den esparru juridikoa zerbitzuak emateagatik eta jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren 7. artikulua izan da. Artikulu horretan hainbat tasatan aplika daitezkeen salbuespenak eta murrizketak jaso dira.

Bestalde, zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak, 3. eranskinean (Haurreskolako jangela), ezarritako tarifen murrizketak arautzen ditu.

Irizpide juridiko-ekonomikoak berdinak dira bi lege-testuetan.

Salbuespen eta murrizketa fiskalen kudeaketak agerian utzi du beharrezkoa dela udal-araudia egungo errealitate sozialera egokitzea, gizarte-larrialdiko kasu gero eta gehiago baitago. Kasu horiek udaletako gizarte-zerbitzuen azterketa xehatua behar dute, horiek baitira gai horretan eskumena duten zerbitzuak.

Dagozkien udal-zerbitzuek gizarte-larrialdikoak ez diren kasuei erantzun diezaiekete, eta eskaerak orain arte bezala kudeatu ahal izango dira.

Horregatik guztiagatik, erregelamendu honetan bateratu egiten da Hernaniko udal tasa eta prezio publikoetan murrizketak onartzeko araudi osoa.

1.
a
rtikulua.-

Xedea

Zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasa hauei tarifen murrizketa aplikatuko zaie, bizikidetza-unitatearen ahalmen ekonomikoaren arabera.

1.-UdalKiroldegia:

*

Eskaeraberria (urte osoan zehar)

**Abonuaren murrizketa berritzea (irailaren 1etik urriaren 31ra)*

**Aisialdirako eta jolaserako igerilekuetako adingabeen abonua (izenemate epean)*

2.- Musika Eskola Publikoa.

3.-KulturaSaileko ikastaroak

4.-Udalekuak

5.-Haurreskolako jangela

6.-Ur hornidura

* *hiri-lurzoruko eta landa-lurzoruko (baserrietako) etxebizitzetako 65m³-ra arteko horniduran soilik*

7.-Hondakinen bilketa

*

bizitegi-eremueta landa-eremuetako hondakinen bilketa

8.-Ereñotzuko toki entitate txikiko udalekuak

9.-Ereñotzuko toki entitate txikiko ikastaroak

10.-Kantuz gitar ikastaroak

2. artikulua.-
Subjektu pasiboa

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35 eta 36 artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.artikulua.Baldintza orokorrak.

1.-Murrizketa fiskalen bat jaso ahal izateko ezingo da udalean zorrikizan. Zorren bat izanez gero 10 eguneko epea emango da hurakitatzeko, salbu eta gizarte-zerbitzuen txosten batbaldin badago esaten duena,salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, baldintza hori betetzetiksalbuets daitekeela.

2.-Murrizketa eta salbuespen guztiak irailaren 1etik urriaren 31 bitarteeskatu beharko dira, hurrengo urtean ondorioak izateko. Data horigutxi beherakoa da eta urtero argitaratuko da epe hori. MusikaEskola Publikoa, Kultura saileko ikastaroak, udalekuak etaHaurreskolako jangela ezik, hauen murrizketa fiskala eskatzeko epeaudal zerbitzuan izena emateko edo matrikulatzeko epea edozerbitzuaren eskaera egitekoa izango da. Horretarako epe zehatzik ezbadago, murrizketa fiskala udal zerbitzua hasi aurretik eskatubeharko da.

3.-Zerbitzuhauetan salbuespena edo murrizketa izatekoeskubideagaldukodutehilabetebateanjustifikatugabeko%25etikgorako bertaratze-hutsegite egiten dituzten zergadunek;kasuhorretan,dagokien tasa ordaindu beharko dute.

4.-Alkateak egoera bereziak kontuan hartu ahal izango ditu, eta iristenzaizkion salbuespenezko kasuei buruzko erabakiak hartu, baldineta udal zerbitzu edo erakunde ofizialen batek salbuespen horiekaplikatzeko proposamena aurkezten badu.

5.-Udalak salbuespeneta murrizketa eskaerak ezetsi ahal izango ditu, baldin etakontraesanak badaude ekitaldi horretako diru-sarreren, ondareaitortuaren eta egindako gastuen artean.

6.-Halaber, bizikidetza-unitatearen errenta garbia edozein dela ere,eskatutako salbuespen edo murrizketak ez ematea erabaki dezakeUdalak, bizikidetza-unitateko kide kontagarri guztien ondarea hartzendelako kontuan, erregelamendu honen 4. artikuluan (Ondare-mugak)xedatutakoaren arabera.

7.-Udalak, edozein unetan, beharrezko ikerketak egin ahal izango dituemandako datuak benetakoak diren egiaztatzeko. Agiriren batfaltsutzen bada edo daturen bat ezkutatzen bada, alkateak erabakikodu kasu bakoitzean zer egin. Eskatutako zerbitzua emateko eskubideagaltzea ere erabaki ahal izango du, eta dagozkion legezko neurrieiekitea.

8.-Onuraduna alokairuan badago, ur horniduraren eta hondakinenbilketaren ordainagiriak bere titulartasuneko kontu bateanhelbideratu beharko ditu.

4. artikulua.- Bizikidetza unitatea

1.-Arau honen ondorioetarako, familia unitatea hartuko da kontuanmurrizketa eskaera guztiak ebazteko.

Familiaunitatea banandu gabeko ezkontideek eta izatezko bikoteko lagunek,bai eta, halakorik badago, hauek ere osatuko dute:

a)Seme-alaba adingabeak, gurasoen edo adoptatzaileek adostasunezhaiengandik aparte bizi direnak izan ezik.

b)Adin nagusiko seme-alabak, baldin eta, KodeZibilaren XI. tituluan xedatutakoaren esparruan, ordezkatzekoahalmena duen kuradoretzapean badaude, betiere kuradoretza horigurasoek edo adoptatzaileek gauzatzen badute.

Halere,bizikidetza-unitatea kontuan izango da ur-hornidura eta hondakinenmurrizketa eskaeren kasuetan. Bizikidetza unitatetzat hartuko dabiztanleen udal-erroldan eskatzailearen helbide berean inskribatutadauden pertsona guztiek osatzen dutena.

2.-Udalak bizikidetza-unitate berriak zehaztu ahal izango ditugizartearen bilakaeraren arabera eta, bereziki, familia-egiturarenereduen bilakaeraren arabera. Ildo horretan, eskatzaileen eta haiekinbizi diren pertsonen arteko mendekotasun ekonomikoa baloratuko da,betiere harreran hartutako pertsonen eta harrera-unitatearen arteaninolako kontraprestazio ekonomikorik ez badago.

Aldehorretatik, murrizketa fiskalaren xede den zerbitzuaren erabiltzaileaadingabea bada eta haren gurasoak bananduta badaude, honako hauekbereiziko dira:

1.-Zaintza partekatua.- Bizikidetza-unitatea bi gurasoek osatuko dute,nahiz eta horietako bat erabiltzailearekin erroldatuta ez egon.

2.-Zaintza ez partekatua.- Egoitza berean 25 urtetik beherakoseme-alabak eta guraso bakarra erroldatuta dauden eta zaintzapartekaturik ez duten bizikidetza-unitateak.

3.- Pertsona bakoitza bizikidetza-unitate bakar bateko kide da, eta bizikidetza-unitateko kide kopurua zehazteko, eskaera egiten den uneko egoera hartuko da kontuan.

5
. artikulua.- Bizikidetza-unitatearen diru-sarreren zenbatespena

Bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gisa zenbatuko dira kideetako edozeinek ondoko kontzeptu hauengatik lortutakoak:

1.- Lan-etekin garbiak, pentsio eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak barne, horien araubidea edozein dela ere; aldi baterako edo biziarteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

Besteren kontura lanean diharduten langileen diru-sarreretatik datorren lan-etekin garbia honela kalkulatuko da: eskatzailearen diru-sarrera gordinak ken Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioen zenbatekoa eta eskubide pasibo eta derrigorrezko mutualitateengatik ordaindutako kopuruak.

2.- Ekonomia jardueren etekinak

Estimazio Objektiboaren edo Zuzeneko Estimazioaren zerga-araubideari atxikitako jardun enpresarialak eta profesionalak baldin badira, dagokion Jardueraren Eranskinean esleitutako Errendimendu Garbia zenbatuko da.

3.- Kapital higiezinaren etekinak

Bizikidetza-unitateak higiezinak baditu diru-sarreratzat hartuko da horien katastro-balioaren % 2, honako higiezin hauena izan ezik: ohiko etxebizitza eta norbere konturako baliabideak eragiten dituen ustiapenerako erabiltzen direnak.Nolanahi ere, landa-ondasunak zein hiri-ondasunak alokatzeagatik, eskualdatzeagatik edo lagatzeagatik lortutako etekin guztiak zenbatuko dira.

4.- Kapital higigarriaren etekinak.

5.- Ondare irabazi eta galerak.

6.- Ezkontideen arteko konpentsazio-pentsioak eta elikagaiengatiko urtekoak.

7.- Prestazio ekonomikoak

6
. Artikulua.- Diru-sarreren araberako murrizketa fiskalak

Tarifa orokorrei honako murrizketa-taula hau aplikatuko zaie, 4. artikulua aplikatu ondoren lortutako bizikidetza-unitatearen gaitasun ekonomikoaren arabera.

1.%90eko murrizketa

Kideak	Diru-sarrerak
1	<LGS+% 20
2	<LGS+% 70
3	<LGS+% 120
4	<LGS+% 170
5	<LGS+% 220
6	<LGS+% 270

2. % 75eko murrizketa

Kideak	Diru-sarrerak
1	LGS+%20<LGS+% 45

2	LGS+%70<LGS+% 95
3	LGS+%120<LGS+% 145
4	LGS+%170<LGS+% 195
5	LGS+%220<LGS+% 245
6	LGS+%270<LGS+% 295

3.% 50eko murrizketa

Kideak	Diru-sarrerak
1	LGS+%45<LGS+% 70%
2	LGS+%95<LGS+% 120
3	LGS+%145<LGS+% 170
4	LGS+%195<LGS+% 220
5	LGS+%245<LGS+% 270
6	LGS+%295<LGS+% 320

4.- % 100eko murrizketa.-
Haurreskolako jangela-zerbitzuaren prezio publikoak ordaintzeko baino ez da aplikatuko.

Kideak	Diru-sarrerak
1	<LGS
2	<LGS+%50
3	<LGS+%100
4	<LGS+%150
5	<LGS+%200
6	<LGS+%250

*LGS: indarrean dagoen lanbide-arteko gutxieneko soldata.

Gaineratzen den kide bakoitzeko 50 puntu gehituko zaizkio ehunekoari.

Ondare-mugetan ezarritako mugak aplikatuko dira, berariaz araututako salbuespenetan izan ezik.

7
. artikulua.- Diru-sarreren taulen aplikazioa

1.- Guztizko diru-sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren azken aldiari dagozkionak izango dira.

2.- Kide kopuruaren inguruan:

a) % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duten adin txikiko kideak dituzten familia-unitateei eta etxebizitza berean bizi diren mendeko pertsonak dituzten familia-unitateei kide bat gehiagori dagokion ponderazioa aplikatuko zaie, ezaugarri horiek dituen pertsona bakoitzeko.

b) Guraso bakarreko familien kasuan, benetan osatzen dituzten kideak baino kide bat gehiagok osatzen dituztela joko da.

c) Genero-indarkeriaren biktimak diren pertsonek osatutako familia-unitateen kasuan, benetan osatzen dituzten kideak baino kide bat gehiago dutela joko da.

d) Gurasoak dibortziatuta edo bananduta badaude, eta zaintza partekaturik ez badago, zerbitzuaren erabiltzailea adingabea bada, arau honetan xedatutakoa betetzen duela egiaztatu duen gurasoari banantze-akordioaren arabera ordaintzea dagokion tasaren kuotaren gaineko murrizketa aplikatuko zaio.

8. artikulua.- Ondare-mugak

Ezingo dute artikulu honetan arautzen diren salbuespen eta murrizketarik eskuratu beren ondareari buruz honako arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek, salbu eta Gizarte Zerbitzuek murrizketa fiskala ematearen aldeko txostena egiten badute, ondarea edozein dela ere.

A) Ondasun higiezinak - Etxebizitza

A-1.- Bizikidetza-unitateko kide bakar batek ere ezin du izan hiri ondasun higiezin baten baino gehiagoren jabe. Dena den, arau honek honako salbuespen hauek izango ditu:

1- Ondasunak izatea subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, eraikin edo etxebizitza-bloke berean kokatutako garajea eta trastelekua barne, edo, hala badagokio, ohiko bizilekutik hurbilen dagoen garajea.

2- Ondasunak izatea ohiko etxebizitza (garaje eta trastelekua) eta lokal bat, lokal horretan bizikidetza-unitateko kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan, lokalak alta emanda egon beharko du jarduera ekonomikoen gaineko zergan.

A-2.- Bizikidetza-unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 180.463,22* euroko muga.

*Zenbateko hori urtero eguneratuko da balio katastralen eguneraketarekin batera.

A-3.- Ez da murrizketarako eskubiderik izango bizikidetza-unitateko kideren bat ohikoa ez den etxebizitza baten jabe bada, honako kasu hauetan izan ezik:

1- Etxebizitza horretan usufruktu-eskubide bat eratu bada eta eskubide horrek indarrean jarraitzen badu, usufruktuduna etxebizitza horretan erroldatuta dagoela. Etxebizitzaren jabetza-eskriturak eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

2- Etxebizitza horren titulartasuna % 100 bizikidetza-unitateko kideena ez bada, betiere etxebizitza horretan norbait erroldatuta badago eta jabetza herentzia baten bidez eskuratu bada. Etxebizitzaren jabetza-eskriturak eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dira, bai eta alokairu-kontratua ere, baldin eta erroldatutako pertsona ez bada etxebizitzaren titularra.

3- Etxebizitza hori %100 bizikidetza-unitateko kideena izanda ere, ohiko etxebizitza ez izatearen arrazoia honako hauetakoren bat baldin bada:

a) Antolamenduz kanpo egotea, aurri-egoeran egotea edo hirigintza-kudeaketari lotuta egotea. Egoera hori agiri ofizial baten bidez egiaztatu beharko da.

b) Bizikidetza-unitateko kide guztiak elkarrekin bizitzeko irisgarritasun- edo espazio-arazoak egotea.

Kasu horretan, etxebizitza hori alokairuan edo erabilera-lagapenean jarri beharko da. Errolda-ziurtagiria eta dagozkion kontratuak aurkeztu beharko dira.

B) Ondare higigarriak

B-1 Bizikidetza-unitatean trakzio mekanikoko ibilgailu bat baino ezin izango da matrikulatu. Ibilgailu hori ezingo da 13,99 zaldi fiskaletik gorakoa izan.

Arau horrek honako salbuespen hauek ditu:

B-1.1 Hauek ez dira kontuan hartuko zaldi fiskalen muga aplikatzeko:

1.- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (EJZren epigrafea, matrikula agertzen dela). Ibilgailuak ezinbesteko baliabidea izan behar du errendimenduak lortzeko.

2.- % 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun maila duten pertsonek gidatzeko egokitutako ibilgailuak, desgaitasuna duen pertsonarenak berarenak baldin badira.

3.- Desgaitasuna duten pertsonak gurpil-aulkian garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

4.- 8 urte edo gehiagoko turismoak. Kontuan hartuko da lehenengo matrikulazioaren data.

B-1.2- Bizikidetza-unitateko ibilgailuak kontatzeko ez dira kontuan hartuko, bidaiariak garraitu ezin dituzten lanerako ibilgailuez gain, trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan eramaten dituzten kamioiak, autobusak, traktoreak, atoiak eta erdi-atoiak.

B-2 Bizikidetza-unitateko kontuen guztien urteko batez besteko saldoen baturak ezingo du ondorengo zenbatekoa gainditu:

- Kide 1: 7.500 euro

- 2 kide: 15.000 euro

- 3 kide: 22.500 euro

- 4 kide: 30.000 euro

4 kide baino gehiago dituzten bizikidetza unitateei 7.500 euro gehituko zaizkio hortik gorako kide bakoitzeko.

Alokairuko daduen bizikidetza-unitateen kasuan, ezin dute 30.000 euroko batezbesteteko saldoa gainditu kide kopurua edozein izanda ere.

C) Ondare mugak ez aplikatzeko salbuespenak:

Ezarritako mugak ez dira aplikatuko honako kasu hauetan:

C-1 Gizarte-zerbitzuek behar bezala informatutako kasuak.

C-2 Zaintza partekatua duten dibortzio edo banantze kasuak. Kasu horietan, guraso bakoitzak bete beharko ditu ondare-mugak.

C-3 Bizikidetza-unitateko kideren baten egungo lan-egoera azken diru-sarreren aitorpena egin zenekoaren berdina ez bada, hau da, eskaera egiteko unean kideren bat gutxienez duela 6 hilabetez geroztik enplegu-eskatzaile gisa badago. Kasu horretan, ez dira kontuan hartuko bere aurreko diru-sarrerak, eta egungo egoeraren arabera birkalkulatuko zaizkio diru-sarrerak. Eskaera egin arte langabeziagatik izandako diru-sarrerak aurkeztu beharko ditu, eta urteko dagozkion diru-sarrerak kalkulatuko zaizkio.

Kasu horretan:

a) Bizikidetza unitatearen ondasun higiezin bakarrak honako hauek izan beharko dute: ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

b) Bizikidetza-unitateak, gehienez, bi ibilgailu izango ditu, eta horietako bat enplegu-eskatzailearena izango da. Gidabaimena eta aseguruaren poliza aurkeztu beharko ditu.

9. artikulua.- Zerbitzu Sozialek kudeatutako gizarte-prestazioengatik diru-sarrerak dituzten zergadunei aplikatu beharreko murrizketak

1.- Gizarte Zerbitzuetako teknikariek kudeatu, baloratu eta izapidetutako prestazio ekonomikoren bat (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak araututako Gizarte Larrialdietarako Laguntza-GLL) jasotzeko baldintzak betetzen dituzten bizikidetza-unitateeko kideek edo gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko laguntza ekonomiko indibidualizaturen bat jasotzeko baldintzak betetzen dituzten bizikidetza-unitateeko kideek honetarako eskubidea izango dute:

a) % 90eko murrizketa aipatutako udal tasak ordaintzeko.

b) % 100eko murrizketa Haurreskolako jangela zerbitzuko prezio publikoa ordaintzeko.

2.- Dagokion murrizketa fiskala lortu ahal izateko, subjektu pasiboak udal honetako Gizarte Zerbitzuek onartutako laguntzen jasotzaile izan beharko du. Murrizketa fiskal horrek araudi honen xede diren tasei eta prezio publikoei bakarrik eragingo die, baldin eta horien zerga-egitatea ez bada sortu laguntza horiek onartzen diren egunean.

3.- Subjektu pasiboek nahitaez jakinarazi beharko dituzte zergapetutako jarduerak gauzatzean gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak, baldin eta murrizketa jasotzeko egindako kalkuluari eragiten badiote. Aldaketek hurrengo hilabetetik aurrera izango dute eragina.

1
0
. artikulua.- Egoera bereziak.

Erregelamendu honetan jaso gabeko egoeraren batean dagoen edozein herritarrek eskatu ahal izango du Zerbitzu Sozialetako teknikariek bere egoera azter dezatela, erregelamendu honetan jasotako tasa eta prezio publikoen ordainketan murrizketa fiskalak dituzten onuradunen fitxategian sartu ala ez erabakitzeko.

11
.- artikulua.- Ez betetzeak

Erregelamendu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duen subjektu pasiboak hemen

ezarritako salbuespen- eta murrizketa-eskubideak galduko ditu, eta bere egoera sozioekonomikoa aldatu zen unetik likidatu behar zituen kuota guztiak ordaindu beharko ditu; era berean, horretarako indarrean dagoen araudian araututakoaren arabera zigortuko da.

12. artikulua.- Kudeaketa

1. Salbuespena edo murrizketa eskatzeko, subjektu pasiboak eskari-orri normalizatua egoki betea aurkeztu beharko du udal erregistroan, hernani.eus webgunean edota 39/2015 Legeak zehaztutako modu eta tokietan.

2. Eskabidea ordezkari batek aurkezten badu, ordezkaritza hori egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dira.

3. Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo dokumentazioa falta bada, eskatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena egiten denetik aurrera, antzemandako akatsak zuzentzeko.

4. Udal-erregistroko langileek, eskabidea behar bezala bete dela egiaztatu ondoren, Errenta Sailari bidaliko diote espedientea.

5. 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalak Gipuzkoako Foru Ogasunean zuzenean kontsultatuko du, interesduna hala egitearen aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, salbuespenak eta murrizketak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa, eta, bereziki, datu hauek:

-
Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuen kontsulta

-Gipuzkoako Foru Aldundia: Ondasun higiezinen kontsulta

-Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta

-Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta

-Foru Ogasunak: Kontu-mailaren kontsulta

-Foru Ogasunak: Ondare mailari buruzko kontsulta

-Gizarte Segurantzako institutua: Gizarte prestazio publikoen kontsulta

-Lanbide: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta

-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia datuen kontsulta

-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen egungo egoeraren kontsulta

-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen aldiko zenbatekoaren kontsulta
-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan enplegu eskatzaile giza inskribatua egotearen kontsulta

-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Data zehatz batean enplegu eskatzaile giza inskribatua egotearen kontsulta

-Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan langabezia egoeraren kontsulta

-TrafikoZuzendaritza Nagusia: Ibilgailu zerrendaren kontsulta

-Lanbide:Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kontsulta epeka (BGDS)

-Lanbide:Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kontsulta (BGDS)

-EAEkoUdalak: Bizikidetza unitatearen errolda data jakin batean

-EAEkoUdalak: Banakako errolda gaur egun

Hala ere, eskatzaileak uko egin ahal izango dio bere datuak kontsultatzeari; kasu horretan, bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du

6. Eskatzailea ebazpenaren egunetik aurrera izango da murrizketaren onuradun.

13. artikulua.- Aurkeztu beharrezko agiriak

1. Eskabide-orri normalizatuak (eranskina) eskuragarri egongo dira hernani.eus web orrian, Herritarren Harrera Zerbitzuan (hhz) eta zerbitzua eskatzen den bulegoetan: kiroldegia, musika eskola, Biteri kultur etxea.

Eskabideak telematikoki edo goian adierazitako lekuetan aurkeztuko dira, eta Errenta Departamentuari zuzenduko zaizkio.

Era berean, beharrezkoa den guztietan, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

-Alokairu-kontratuak, familia-unitatetik kanpoko pertsonekin bizi izanez gero.

-Banantze- edo dibortzio-hitzarmenak, eta alegatzen diren gai pertsonalen egiaztagiriak.

2. NISAEren bidez kontsulta egiteko baimenik ematen ez bada, bizikidetza-unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken ekitaldiko aitorpenaren fotokopia, edo, aitorpena egitera behartuta ez badago, Foru Ogasunaren ziurtagiria, aitorpena egiteko obligaziorik ez duela adierazten duena.

b) Errenta-aitorpena egin beharrik ez badu, enpresaren ziurtagiria (10-T), edota langabeziagatik edo beste kontzeptu batzuengatik jasotzen dituen prestazioen ziurtagiriak. Kasu horietan, INSSek emandako lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da beti.

c) Ekonomia jardueretatik datozen diru-sarreren kasuan, errenta-aitorpenarekin batera PFEZaren dagokion eranskina aurkeztu beharko da, jarduera-etekinak zehazten dituena.

d) Lanerako beharrezkoak diren ibilgailuen kasuan, ibilgailuaren fitxa teknikoa eta eskaera egilearen EJZ aurkeztu beharko dira da.

3. Hala badagokio, ordezkaritzaren agiria.

1
4
. artikulua.- Indarraldia

Murrizketak ebazpena ematen den egunetik aurrera izango du indarra, eskatutako udal zerbitzua bukatu arte

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantzahau indarrean sartzen den unean indargabetu egingo dira haurreskolakojangela-zerbitzuaren prezio publikoa ordaintzeko onartutakomurrizketak eta ordenantza honetan ezarritakoak aplikatuko dira.Halaber, indargabetuta geratuko da Zerbitzu publikoak emateagatik etajarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituenordenantza fiskalaren 7. artikulua; eta, 2024rako ondorioekinindargabetuta geratuko dira ur-hornidura eta hondakin-bilketa tasakordaintzeko diru-laguntzak emateko kudeaketa-arauak, Tokiko GobernuBatzarrak 2009ko ekainaren 30ko ohizko bilkuran onartutakoak, (2014komaiatzaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako aldaketarekin(2014/05/30 GAO).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte